



# GAZTEENTZAKO FINANTZA-HEZKUNTZARI BURUZKO KANPAINA IHES-GELA BATERAKO 5 SARRERAREN ZOZKETA

## 1.- ERAKUNDE ANTOLATZAILEA ETA SARIA

Caja Laboral Popular Coop. de Créditos —aurrerantzean LABORAL Kutxa—, F75076935 zenbakidun IFK eta helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500— duenak, ihes-gela baterako 5 sarrera zozkatuko ditu, nazio-mailako SUSTAPEN baten barruan.

## 2.- ZOZKETAREN ESPARRUA ETA DOAKOTASUNA

Sustapen hau 1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan jokia arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz antolatu da, eta doakoa eta borondatezkoa izango da. Hortaz, saria eskuratu ahal izateko, ez da kuota edo kopuru gehigarririk ordaindu beharko.

## 3.- SUSTAPENAREN HELBURUA ETA PROZEDURA

**Sustapen bat (1) egingo da, eta honako hau izango da saria:**

- Ihes-gela baterako 5 sarrera. Ausazko sistema informatiko baten bidez zozkatuko dira, ezarritako epean baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean. Zozketa 2022ko irailaren 1ean egingo da.

**Saria eskuratu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:**

- Pertsona fisikoak diren bezeroek hartuko dute parte zozketan, betiere GAZTE KONTUA badute, idatzizko jakinarazpena jaso badute, eta epearen barruan bulegora joan badira euren helbide elektronikoa ematera. NAN bakoitzeko sari bakarra emango da. Zozketa prozedura informatikoen bidez egingo da.
- Irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izatekotan, egunean eta positiboan izan beharko ditu entitatearekin kontrataturiko produktuak edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa. Behin soilik har daiteke parte pertsona fisiko gisa.

Sustapenean parte hartzeak berekin dakar partekatutako edukien gaineko jabetza intelektuala eta irudi-eskubideak lagatzea. Hori horrela, bidalitako partaidetzaren ondorioz legozkiokoen ustiapen-eskubide intelektualak, industrialak edo irudikoak laga behar dizkio parte-hartzaileak LABORAL Kutxari.

## 4.- IRAUPENA ETA EREMUA

Jarduera Espainiako lurraldean gauzatuko da.

Sustapenean parte hartzeko epea 2022ko uztailaren 29an amaituko da. Zozketa 2022ko irailaren 1ean egingo da.

## 5.- PARTE-HARTZAILEAK

**Honako hauek hartu ahal izango dute parte sustapenean:**

- Pertsona fisikoak diren bezeroek hartuko dute parte zozketan, betiere GAZTE KONTUA badute, idatzizko jakinarazpena jaso badute, eta 2022ko uztailaren 29a baino lehen (hura barne) bulegora joan badira euren helbide elektronikoa ematera.

**Egoera hauetako batean dauden LABORAL Kutxaren bezeroek ez dute parte hartzeko edo saria irabazteko eskubiderik izango:**

- LABORAL Kutxaren aurrean berankortasun-egoeran edo beste edozein egoera irregularretan badaude zozketa indarrean dagoen bitartean, zozketa egiten den egunean edo saria emateko unean.
- LABORAL Kutxaren iritziz iruzurrez jokutzen badute zozketan.



## **6.- IRABAZLEA(K) ETA ORDEZKOAK AUKERATZEA ETA SARIA JAKINARAZTEA ETA EMATEA**

3. atalean zehaztutako sariaren zozketa 2022ko irailaren 1ean egingo da, ausazko sistema informatiko baten bidez. Bidezko arrazoi bat dela eta zozketa ezin bada egun horretan egin, hurrengo egun baliodunean egingo da. Saria onartzen duen ala ez jakinarazi beharko dio saridunak LABORAL Kutxari, telefonoz, posta elektronikoz edo bulegoetan sinatutako hartu-agiriaren bidez, saria argitaratzen edo jakinarazten den datatik gehienez egun natural bateko (1) epean.

Parte-hartzaileak sariari uko egiten badio, edo berarekin harremanetan jartzetik ez badago, ez du inolako ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Bezero saridunak sariari uko egiten badio, berarekin harremanetan jartzetik ez badago edo lehenago azaldutako baimena ematen ez badu, saria ordezkoen zerrendako lehen postuan dagoenari esleituko zaio, zozketan parte hartzeko ordena errespetatuz. Saridunak ezingo du sari horren ordezk beste bat eskatu.

Sariduna saria jaso aurretik hiltzen bada, helburu horrekin berariaz aukeratutako ordezkoari emango zaio.

## **7.- SARIAREN ZERGA-SISTEMA**

Zozketa honetako sariak zerga-tratamendu hau izango du: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 35/2006 Legean, 439/2007 Errege Dekretuan eta kasuan kasuko PFEZren inguruko zerga-araudian aurreikusitakoa. LABORAL Kutxak ordainduko du sariari aplikatuko zaion zerga-atxikipearen zenbatekoa.

Era berean, LABORAL Kutxak bere gain hartuko ditu Zerga Administrazioaren aurrean dagozkion informazio-betebeharrak.

## **8.- IRUZKINAK EDO IRITZIAK ARGITARATZEA**

Ez da onartuko iruzkin edo iritzirik, horien edukia desegokitzen jotzen bada, iraingarriak, laidogarriak edo diskriminatzaileak badira, edo hirugarrenen eskubideak urra baditzaizkete. Halaber, ez da onartuko pertsona baten aurkako iruzkinik, baldin eta ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea urratzen badu. Ez dugu gure gain hartuko inolako erantzukizunik parte-hartzaileek zozketan egiten dituzten iruzkinak eragindako kalteen ondorioz, nahiz eta horiek beste parte-hartzaile batzuen sentsibilitatea mindu.

## **9.- ERRESERBAK ETA MUGAK**

Iruzurra egin dela ulertuko da kasu hauetan, baina ez horietan bakarrik: webgunearekin zerikusirik ez duten aplikazioen balizko erabilera detektatzen bada, zerbitzariari gehiegizko kontsulta-kopurua egiten bazaio eta itxuraz gehiegizkoak edo asmo txarrekoak diren portaerak antzematen badira.

Sustapenean zehar halako egoeraren bat egiaztatzen bada, parte-hartzailea zozketatik kanpo geratuko da zuzenean, eta, saria eman bazaio, galdu egingo du.

LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik, saridunek emandako datuetan akatsen bat badago eta horrek haien identifikazioa galarazten badu.

LABORAL Kutxak ez du inolako erantzukizunik izango, saria ematean edo hori erabiltzean gerta litezkeen gorabeheren ondorioz, ezta berari ez dagozkion arrazoiengatik parte-hartzaileak saria jasotzean gerta litezkeen atzerapen edo hutsegiteen ondorioz ere.

Pertsonaren batek sustapenaren manipulaziotzat edo faltsifikaziotzat har litekeen edozein egintza egiten badu, LABORAL Kutxak eskubidea izango du haren aurka ekintza judizialak abiarazteko.

LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik sustapenean parte hartzeko erabiltzen diren zerbitzuak aldi baterako erabiltzerik ez egoteagatik edo haien funtzionamendua eteteagatik, erabiltzaileek iruzurrez erabiltzeagatik eta, bereziki baina ez eskusiboki, Internet bidez orrialdeetan sartzean eta parte hartzeko erantzunak bidaltzean izan litezkeen akatsengatik gertatzen diren kalte-galeren ondorioz.

LABORAL Kutxak eskubidea izango du sustapenaren xede onerako aldaketak egiteko, horretarako bidezko



GAZTEENTZAKO FINANTZA-HEZKUNTZARI  
BURUZKO KANPAINA  
**IHES-GELA BATERAKO 5 SARRERAREN ZOZKETA**

arrazoiak daudenean edo zozketa oinarri hauetan jasotzen den moduan burutzea galarazten duten ezinbesteko arrazoiak daudenean.

LABORAL Kutxak eskubidea izango du sustapenaren iraunaldia luzatzeko edo geroratzeko, baita oinarri hauek interpretatzeko ere.

Halaber, enpresa antolatzaileak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik aipatutako kasuetako bat gertatzen bada edo saria baliatzean gerta litezkeen kalte-galeren ondorioz.

## **10.- DATUEN BABESA**

Zure datuen tratamenduz arduratzen den enpresa LABORAL Kutxa da (IFZ: F-75076935; egoitza soziala: Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500, Arrasate, Gipuzkoa).

Parte-hartzaileak lege-oinarri hauek onartzen baditu, ulertuko da badakiela LABORAL Kutxak bere datu pertsonalak tratatuko dituela, zozketan parte hartzea tramitzeko eta, irabazlea izanez gero, sariaren berri emateko, baita saridunaren izena edo irudia argitaratu, erreproduzitu eta hedatzeko ere, LABORAL Kutxak egoki deritzen bitarteko, euskarri eta formatuen bidez (hala nola, adibide gisa baina inolako mugarik gabe, prentsaren, irratiazen, telebistaren, Interneten eta abarren bidez), datu pertsonalak tratatzeko pertsona fisikoak babesteari eta datuen zirkulazio libreari buruzko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EB Erregelamenduan eta datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera. Jarduera horiek ez dute ordainik edo onurarik jasotzeko inolako eskubiderik emango.

Datuak ikusteko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak eta, era berean, datuen tratamendua mugatzeko eta beste leku batera eramateko eskubideak erabili ahal izango ditu parte-hartzaileak, bere nortasuna egiaztatuz (NANaren edo horren pareko agiria emanez) eta [protecciondatos@laboralkutxa.com](mailto:protecciondatos@laboralkutxa.com) helbide elektronikora idatziz, edo, bestela, ohiko postaren bidez, helbide honetara zuzenduz: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO, Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500, Arrasate, Gipuzkoa.

Bezeroen Datu Pertsonalak Babesteko Politika osoa hemen irakur dezakezu:  
<https://www.laboralkutxa.com/eu/datuen-babesa>.

## **11.- OINARRIAK ONARTZEA**

Sustapenean parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea. Beraz, parte-hartzaileak adierazten badu oinarri hauek guztiak edo batzuk ez dituela onartzen, zozketatik kanpo geratuko da. Ondorioz, LABORAL Kutxak ez du parte-hartzaile horrekin hartutako obligazioa bete beharko. Oinarri hauek [www.laboralkutxa.eus](http://www.laboralkutxa.eus) webgunean kontsulta daitezke.

## **12.- LEGERIA APLIKAGARRIA ETA JURISDIKZIOA**

Lege-oinarri hauek Espainiako legearen arabera arautuko dira. Bergarako epaitegi eta auzitegiek izango dute eskumena oinarri hauen baliozkotasunaren, interpretazioaren edo betetzearen inguruan sor litezkeen erreklamazioak edo ezadostasunak ebazteko.